

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

789

70/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 31koa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Miren Elixabet Loyola Lizarralde andrea Ermuako Lehen Mailako Arreta Unitateko Gainbegirale kargutik kendu den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

828/2019 Ebazpenaren bidez, Miren Elixabet Loyola Lizarralde andrea Ermuako LMAUko Gainbegirale izendatu zen Osakidetzako Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Elixabet Loyola Lizarralde andrea Ermuako Lehen Mailako Arreta Unitateko gainbegirale kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetzako Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko otsailaren 7an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok e Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2022ko urtarrilaren 31.

Debabarreneko ESiko zuzendari-gerentea,
MARBELLA GARCÍA URBANEJA.